

UMEEKIN NATUR INGURUNERA, BAINA... NOLA?

Ekhine Arretxe • Irantzu Ibañez

NOIZBAIT ume talde batekin (eskola taldea, aisialdiko taldea, mendi taldea...) natur ingurunera irteera bat antolatzea egokitu ezkeru, nondik hasi? Nora eraman? Nola joan? Zer egin? Horrelako mila galdera sortu ohi dira.

Ingurune naturala eremu oso egokia da umeen hezkuntza integrala bultzatzeko; normalean natura nahiko ezezaguna egiten zaien ingurunea da, baina era berean oso motibagarria eta aberasgarria eskein ditzakeen esperientzia berriengatik. Gure iritzi, ume talde batekin mendira joatea ez litzateke soilik leku batetik bestera eramatera mugatu behar, oso garrantzitsua izango da antolatzaile eta begiraleen eskuhartzea jarduerak dibertigarri, atsegin eta, era berean, hezigarriak izan daitezen. Horretarako jarduera bera osatuko duten baliabide anitz erabil daitezke, besteak beste, inguruko animalia eta landaretza ezagutzea, lurretik bildutako harri edo hostoekin eskulanak egitea, inguruneak eskaintzen dituen baliabideak probestuz jolasak egitea, inguruko artisautza eta kulturaren berri ematea, e.a.

Beraz, gure esperientzia eta bizipenetan oinarrituz, hainbat ideia orokor eta ohar garrantzitsu eman nahi dugu mota honetako irteeren antolaketa bideratzeko. Hala ere, existitzen den bibliografia oso zabala izan ez arren, egon badaude ideiak hartzen lagunduko dizuen liburu, aldizkari, e.a.

Ekhine Arretxe es licenciada en IVEF e Irantzu Ibañez es miembro de la Escuela Vasca de Alta Montaña.



ENTZIA

● IRTEERA BATEN ANTOLAKUNTZARAKO 10 OHAR


- 1.- Partaideen adina eta ezaugarriak kontutan hartu: Ume txikiak jarduera asko moldatu egin beharko dira eta beste batzuk ezingo dituzte burutu; era berean, joko eta jolasak erabili beharko dira asper ez daitezen. Beraz, gomendagarria da aurrez prestatuak edukitzea. Nagusiagoekin, aldiz, ekintzaren ezaugarri teknikoak nahikoak izan ohi dira beraien motibazioa mantentzeko.
- 2.- Partaide kopurua: Ez da gomendagarria jarduerak talde handiekin burutzea, antolaketa eta azpiegitura arazoak sor baitaitezke. Begirale kopurua ere partaideen arabera izango da.
- 3.- Partaideen datu pertsonalak: Irteera antolatu eta aurrera eramateko orduan datu pertsonal zenbait oso erabilgarriak izango dira, besteak beste, adina, telefono zenbakia, osasunari buruzko datuak, e.a.
- 4.- Jarduera mota: Honen ezaugarri teknikoak, materiala, begirale kopurua, aurrekontua eta beste hainbat faktore mugatuko ditu. Adibidez, ez da berdina Gorbeiatik mendibuelta bat ematea edo Lintzara iraupen eskia egitera eramatea.
- 5.- Jardueraren iraupena: Egun erdikoa, egun batekoa, pare bat egunetako, aste batekoa... Honen arabera lo egiteko lekua, janaria, garraioa, etab. alde aurretik zehaztu beharko da.
- 6.- Urtaroa eta eguraldia: Urtaro bakoitzak jarduera bat edo beste egiteko baldintza hobeak eskainiko ditu; eguraldiaren aldaerak ere ekintza alternatiboak prest edukitzera bultzatuko gaitu.
- 7.- Lekua: Burutu nahi den jardueraren arabera, leku batek edo besteak baliabide eta aukera ezberdinak eskainiko ditu. Dena den, leku batzutarra (parke naturalak edo erretserba naturalak, ingurune babestuak...) taldeekin joateko batzutan baimen bereziak behar izaten dira, beraz, hauen inguruko informazioa lortu beharko da.
- 8.- Aurrekontua: Diru kopuruak, hainbatetan bezala, faktore asko baldintzatuko ditu, horregatik ondo baloratu beharko dira

alternatiba guztiak (jardueran, garraioan, lekuan...) irteera ahalik eta eskuragarrien izan dadin.

- 9.- Garraioa : Ume kopuruaren eta aurrekontuaren arabera zehaztuko dugu, aukera ezberdinen artean erabakiz (garraio publiko edo pribatua, gurasoen laguntza, e.a.).
- 10.- Materiala: Ekintza berak zehaztuko du beharra, beraz materiala lortzeko daukagun aukera edo baliabideen arabera egin ahal izango dugu irteera. Material hori iturri ezberdinetatik lor daiteke: kirol elkarteak, denbora libreko tadeak, mendi taldeak, alokairu dendak, e.a.

● MOTXILAN ERAMAN BEHARREKO 10 GAUZA

- 1.- Natur ingurunean ibiltzeko arropa eta oinetako egokiak
- 2.- Xira edo berokia
- 3.- Jertsea edo forro polarra
- 4.- Aldatzeko arropa eta oinetakoak




- 5.- Txanoa
- 6.- Eskularruak
- 7.- Eguzkirako krema
- 8.- Janaria
- 9.- Kantinplora
- 10.- Gizarte segurantzako mediku txartelaren fotokopia eta txertoen kartila

**Jarduera, urtaroa eta eguraldiaren arabera aldagaiak egongo dira goian aipatu zerrendan*

● OINARRIZKO SEGURTASUNERAKO 10 ARAU

- 1.- Oinarrizko botikina eraman
- 2.- Telefono mugikorra : nahiz eta telefonoak eraman, laguntza eskatzeko inguruko lekuak alde aurretik zehaztu
- 3.- Gurasoekin kontaktuan jartzeko telefono zenbakiak eraman
- 4.- Eguraldiaren iragarpena begiratu eta inguruan aterpe erabilgarri bat edukitzen saiatu; era berean, ekintza alternatiboak prest eduki.
- 5.- Jardueraren araberako ume eta begirale kopuruen arteko erlazio egokia
- 6.- Ibilbidean egon daitezkeen arrisku lekuak kontrolatu eta ondo babestu.
- 7.- Umeei eman beharreko segurtasun oharrak: taldetik ez urrundu ezer esan gabe; galduz gero, leku batean geldirik egon begiralea bere bila joan arte; ontto eta fruitu ezezagunak ez jan, kutsadura ekiditeko; arriskutsuak izan daitezkeen animalietara ez hurbildu (sugeak, erlauntzak, zezenak...).



RINCÓN DE BELAGOA

- 8.- Taldearen aurrealdean eta atzekaldean gutxienez begirale bana egongo da.
- 9.- Umeen noizbehinkako kontaktak egin.
- 10.- Begiraleek jardueraren araberako esperientzia, prestaketa edota titulazioa eduki beharko dute.

● NATUR INGURUNEAREN ERRESPECTURAKO 10 ARAU

- 1.- Ez bota zaborrik lurrera eta hala gertatuz gero, denen artean jaso.
- 2.- Animalia eta landareak errespectatu.
- 3.- Surik ez egin
- 4.- Bide eta bidezidorrak erabili, hauetatik kanpo ibiltzea ekidinez.



URBASA



- 5.- Ibai eta errekek errespetatu, hauetara inolako zabor eta sustantziarik bota gabe
- 6.- Ingurunea ahalik eta gutxien eraldatzen saiatu
- 7.- Oihu eta zarata handiak ekidin
- 8.- Langarik zeharkatuz gero, aurkitutako modu berean utzi.
- 9.- Landutako lurretan ez sartu
- 10.- Bertako biztanleak (nekazariak, artzaiak...) eta ohiturak errespetatu.

● **10 JARDUERA**

Natur ingurunean egiten diren jardueren artean aukera zabala dago; nahiz eta antolatzaileek gaitasun tekniko nahikorik ez eduki, ekintzaren ardura begirale edota enpresa espezializatuen esku utzi daiteke.

- 1.- Mendi ibilaldiak
- 2.- Orientazioa
- 3.- Espeleologia
- 4.- Eskalada
- 5.- Piraguismoa
- 6.- Mendiko txirringa
- 7.- Eskia eta elur-jarduerak
- 8.- Kanpaketak
- 9.- Zaldiketa
- 10.- Kainoi jeitsiera

Gure ustez jarduera fisiko hauek beste mota bateko ekintzekin osatu beharko lirateke, umeez ezagutza eta esperientzia maila handiago bat lor dezaten, besteak beste: meteorologia, astronomia, lekuko landaretza, animalia, mitologia, artisautza, tradizio kultural eta abarren inguruko ezagutza ekintza eta tailerrak.

● **JARDUERAK GAUZATZEKO 10 LEKU**

Gure gomendio nagusia bizilekutik gertuen daukazuen natur inguruneak probestea da, hala ere ondorengo lekuak aipatu beharra daukagu haien natur aberastasun eta edertasun bereziagatik eta jarduera ezberdinak egiteko eskaintzen duten aukeragatik.

- 1.- Urbasa: Batez ere espeleologia, orientazioa, mendi ibilaldiak, mendiko txirringa...



- 2.- Urdaibai eta Oma-ko bailara: ur-ekintzak, mendi ibilaldiak...
- 3.- Urkiolako Parke Naturala: eskalada, mendi ibilaldiak...
- 4.- Bardeak: mendiko txirringa, orientazioa, geologiaren ezagutza tailerrak...
- 5.- Belagoa: eskia, kainoi jeitsierak, zeharkaldiak, kanpaketak...
- 6.- Valderejo Parke Naturala: ibilbide ekologikoak, txorien behaketa, zaldiketa...
- 7.- Gorbeia Parke Naturala: espeleologia, ibilbide ekologikoak...
- 8.- Holtzarte eta Kakueta ezarriak: ibilbideak, geologiaren ezagutza tailerrak, landaretzaren ezagutza...
- 9.- Aizkorri eta Urbiako zelaia: historiaurreko monumentuen ezagutza, ibilaldiak, kanpaketak...
- 10.- Aiako Harria Parke Naturala: ibilaldi ekologikoak, eskalada...

● 10 LIBURU INTERESGARRI

- 1.- HÉOMET, B. *Actividades en la naturaleza*. Hogar del Libro: Barcelona (1986).
- 2.- PINOS QUILEZ, M. *Actividades y juegos de educación física en la naturaleza*. Editorial Gymnos: Madrid (1997).
- 3.- SANTIUSTE BLAZQUEZ, Y; VILLALOBOS JUAN, E. *Juegos en el medio natural*. Pila Teleña: Madrid (1999).
- 4.- HAMILTON, L. *Los niños y la naturaleza*. Paidós: Barcelona (1999).



CARRASCAL

- 5.- WINTER, S. *Eskalada deportiva con niños y adolescentes*. Ed Desnivel.
- 6.- BEUROUJON. *Fichero de juegos de escalada*. Inde: Barcelona (1999).
- 7.- COSTA. *Orientación en la naturaleza. Manual básico de iniciación*.
- 8.- TELLAGORRI, M; ITXINA, E. *Rutas y paseos por parajes naturales de Euskal Herria*. Sua edizioak: Bilbo (1999).
- 9.- AGIRRESAROBÉ, A. *Escapadas por las montañas de Euskal Herria*. Antza: Lasarte-Oria (1999).
- 10.- Aldizkariak: Pyrenaica, Euskal Herria, Desnivel, Turismo y aventura, Grandes Espacios, Pirineos, Apunts (Dossier: Las actividades físicas en la naturaleza. Nº 41, Julio 1995), e.a.

RESUMEN

Salidas al monte con niños, pero ... ¿cómo?

HE aquí una selección de puntos, fruto de la formación y de la experiencia de las dos autoras, sobre cómo organizar excursiones al monte con grupos de niños. Se trata de conseguir salidas que sean instructivas, pero sobre todo que sean divertidas y, desde luego, seguras. Se presentan en forma de una serie de decálogos de consejos: de equipo a llevar en la mochila, de medidas de seguridad, de normas de respeto a la naturaleza, de tipos de actividades, de literatura básica e incluso la sugerencia de diez sitios recomendables para pasear en Euskadi. □



ARGAZKAK: EKIHNE ARRETXE

EBROKO BAZTERRAK

BARDEAK